

**ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEKO EZAGUTU EGIN BEHAR DITUGU!**

**PARTAIDEAK:** Garagunea (Goyeneche Fundazioa), Jakintza Ikastola  
Garaguneko 4 erabiltzaile eta 2 profesional; Jakintza Ikastolako DBH4. mailako 21 ikasle eta irakaslea.

**DATA:** 2014ko otsailak 21

**HELBURUAK:**

- Elkar ezagutzea.
- Garagunean eta ikastolan saio desberdinetan landutako eskubide bat partekatzea, ondoren aztertuz bermatua dagoen ala ez bakoitzaren bizitzan, horren arabera hobekuntzarako proposamenak aurkezteko.

**EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:**

Giza eskubide bat oinarri hartuz, eskubide hori landu egiten da ea gure bizitzan bermatua dagoen ala ez ikusiz eta horri aurre egiteko bideak bilatzen dira. Kasu honetan, 12. giza eskubidea aukeratu da, intimitatearen eskubidea hain zuzen ere.

Honela, lehenik eskubiarekin zerikusia duen bideo labur bat aurkezten da eta ondoren bideoan ikusitakoa bi taldetan lantzen da, hain zuzen, eskubidearen ulermena eta balorazioa lantzen da. azkenik, eskubidea erabiltzaileen bizitzarekin lotzen da, alegia; eskubide hori bermatua al dago gure bizitzan? Zein kasutan? Eta noiz ez da bermatzen? Zer egin genezake hori aldatzeko? Ondoren, talde handian partekatzen dira bi taldeetan jorratutako ekarpenak, kexak, etab.

**BALIABIDEAK:**

Ikastolako Aretoa, portatila, kanoia eta antolaketa bilera.

**BALORAZIOA:**

Kasu honetan, 12. giza eskubidea landu da: "Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik su eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea.

Bai garagunean, bai ikastolan, balorazio oso ona jaso du ekimen honek.



### GIZA ESKUBIDEEN MANIFESTUA

#### ARDURADUNA: DAR-DAR PRODUKZIOAK GIZARTE EKINTZA KETT

#### PARTAIDEAK:

Partaideen kopurua: 836 Gizonezkoak % 50,48 Emakumezkoak % 49,52

Hartzailearen adina: Haurrak(0-12) 721 Nerabeak(13-18) 115

Ikasleez gain beraien familiek ere parte hartu dute ekintza honetan.

- Jakintza ikastolan 245 familiak hartu dute parte ( Datu hau zehatza da)
- Urdanetan berriz 406 familia dituzte ikastetxe osoan haur hezkuntzakoak ere kontaktuta.
- Gure ustez 500 familia inguru izan dira burututako ekintzetan parte hartu dutenak.

Gainera Oianguren institutuko 100 ikaslek parte hartuko dute proiektuan urtea amaitzerako.

#### DATA:

2015eko maiatzak 4 eta 29 bitartean

#### HELBURUAK:

- Ikasleei Giza Eskubideen manifestuaren existentzia jakinarazi eta ipuinen bidez beraien egunerokotasunean gertatzen diren giza eskubideen urraketaz konturarazi.
- Ikastetxeei eta Irakasleei baliabide bat, abiapuntu bat, eskaini kurtsoan zehar giza eskubideen inguruan ikasleekin lan egiteko.

Landuko diren balioak:

Asko izan dira landutakoak: Elkarrenganako errespetua, desberdin izateko eskubidea etab. Baina batez ere beste errealitate batzuk badirela eta besteenganako enpatia izaten saiatu behar dugula.

### **EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:**

Ekintza gelaka burutu da. Gelak iristean:

- Proiektuaren berri eman diegu irakasle eta ikasleei.
- Giza eskubideen aldarrikapena noiz eta zergatik sortu zen adierazi diegu.
- Haurren eskubideen aldarrikapena landu dugu adibideen bidez kontzeptu abstraktuenak beraien errealitatera hurbiltzen saiatuz.
- Gai ezberdinak ipuinen bidez landu ditugu (Ezberdin izateko eskubidea, maitatzeko aukera ezberdinak LGTBQI, transexualitatea, arrazakeria etab).
- Ondoren lehen hezkuntzako ikasleak gelan egin dugun lanketa etxean kontatzera gonbidatu ditugu. Honela proiektuaren transmisore bihurtu dira.
- Ikasle bakoitzak bere familiarekin giza eskubideen inguruan hausnarketa bat burutu du, eta bakoitzak ikastetxera giza eskubideen inguruan bere familiarekin idatziriko esaldi bat ekarri du.
- Ikasleen familietan egon den hausnarketaren ondorioz sorturiko esaldi hauetatik abiatuz gela bakoitzak bere horma-irudia osatu du.
- Ikastetxeetan sorturiko muralekin erakusketa bat egin da barrena kultur etxean eginiko lana gizarteratzeko asmoaz.
- DBHko ikasleei berriz beraien inguruan duten biolentzia estrukturalaren adibide bat jarri eta hori ekiditeko beraien konpromisoa idaztea eskatu genien.

### **METODOLOGIA ekintza antolamendua ( burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):**

Udalarekin eta ikastetxeekin bi prestaketa bilera ekintzaren haurretik.

Ekintza amaitzean ikastetxeetako zuzendariekin itxiera bileratxoa lehen iritziak jasotzeko. Ondoren ikastetxeei ekintzaren balorazioa egiteko txantilo batzuk eman zaizkie. Hauek jaso ondoren Dar-Darrek bere balorazio propioa egin du eta dena udaletxean entregatu du udalak berea egin ahal izateko.

### **BALIABIDEAK:**

- Guneak:

Jakintza ikastolako balio anitzeko aretoa eta Urdaneta eskolako liburutegia erabili dira ikasleek proiektua jasotzeko gune bezala. Barrena Kultur Etxeko sarrera erakusketa ezartzeko.

- Saioak eta erakusketa:

Aktore / dinamizatzaile bat eta irudi arduradun /dinamizatzaile bat. Proiektore bat irudiak eta PDF batzuk proiektatzeko. Barrena kultur etxean egin den erakusketarako bertan dauden espositoreak.

- Balorazioa egiteko:

Txantiloiak.

## **BALORAZIOA:**

- Ikastetxeena:

Bi ikastetxeetan jasotako txantiloien puntuaketen media (0tik 10era) 9,05 izan da.

- Gehien errepikatu den puntuaketa 8 izan da 16 irakaslerekin .
- 10eko puntuaketa berriz 9 irakaslek eman diote ekintzari.
- 7ko puntuaketa 5 irakaslek.
- 9ko puntuaketa 4 irakaslek.
- 6,5 bi irakaslek.
- 6 irakasle batek.

Giza eskubideak lantzeko modua oso egokia 17 irakasleren ustean eta egokia 20 irakasleren ustean.

Landutako gaiak? Oso egokiak 23 irakasleren ustean egokiak 14 irakasleren ustean.

Zer iruditu ekintzaren antolaketa ? oso egokia 19 irakasleren ustean egokia 18 irakasleren ustean.

Gelaka emaniko tratu pertsonalizatua Oso egokia 19 irakasleren ustean egokia 18 irakasleren ustean.

Galdera hauei erantzuteko garaian Oso egokia, egokia eta desegokia aukerak zituzten.

- Dar-Dar ekoiztetxearen balorazioa:

Oso positibotzat jo genezake. Guk sorturiko proiektuaren balorazioa oso altua izan baita parte hartzaileen esanetan. Ordiziako LH guztian (ikastetxeak, irakasleak, ikasleak eta hauen familiak). giza eskubideen inguruan lanketa eta gogoeta egin dute eta honek gure proiektuaren izpiritu integrala, horizontala eta zeharkatzailea berretsi du. Ikastetxeetatik abiatuz Ordiziako gizartea ziprztindu

dugu giza eskubideen inguruko ideiez eta hausnarketez.

**HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:**

Agian saioen denbora luzatu beharko genuke, baina orduan ikastetxean ordutegiak arazoak agertuko lirateke.

Ikastetxeekin elkarlanean ekintza diseinatzeko aukera aztertu beharko genuke.

**OHARRAK**

Esanagatik ikastetxeei oso eroso egiten zaie ikastetxean bertan ekintzak burutzea.